

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteazkena, 2011ko otsailaren 16a. VIII. urtea. 2.175. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

## Ugane eta Aldabako auzotarrak «haserre» daude AHTren lanekin

Obrek eragiten dituzten arazoak pairatzen dituztela salatu dute Tolosako bi auzoetako bizilagunek eta errepideek izan ohi duten egoera kaxkarra nabarmendu dute

Olatz Peon zinegotziak udalak herriko errepideetan «ikuskapen lanak» egiten dituela dio eta arazoak saihesteko «aurreikuspen lana» falta izan dela esan du **03**



Kamiol handi bat Uganera doan errepidea gurutzatzen bere zama hondakindegira eramateko. I.GARCIA

## Erromatik Santiagorako bidea egin dute Oiartzabal eta Oterminek

Anjel Oiartzabal alegiarrak 2.600 km egin zituen oinez irailaren 15etik abenduaren 25a bitarte Santiagora iristeko; bidearen lehen zatian Jose Mari Otermin amezketarra izan zuen bidelagun **06**

2012. urte  
bukaerarako  
berrituko dute  
Leitzako  
Amazabal  
auzoa

Sare guztiak berrituko  
dituzte eta aparkalekuak  
egingo dituzte **07**

Haurrak  
euskaraz  
erregistratzeko  
oztopoak  
daudela salatu  
du UEMAK

Jaurlaritzak Ibarren  
esperientzia pilotu bat  
abiaraziko duela esan du **05**



Txarangak ezinbestekoak izan ohi dira zezen-plazan. HITZA

## Zenzen-plazarako sarrerak salgai izango dira hilaren 28tik aurrera

Aurten lehenengoz, palkoetako sarreraren salmena zozketa bidez kudeatuko du udalak

### Erredakzioa

Aurtengo Inauterietarako bi aste eskas geratzen direla, herria prestakizunetan murgilduta dabil. Horrela, aurtengo zezenetarako sarrerak erosteko egunak ere finkatu ditu jada udalak. Aurten, iazko moduan, Ostegun Gizenan ere zenzen-plazarako sarrera ordaindu egin beharko da, Zaldunita, Astelenita eta Asteartitan bezalaxe. Lau egun hauek izaten dira jendetsuenak zezen-plazan,

eta ikusleen segurtasuna ahalik eta gehien bermatze aldera hartu zuen udalak Ostegun Gizenan sarrera kobratzeko erabakia; aforoa kontrolpean mantentzeko modu egokiena dela diote.

Prezioei dagokien ez da aldaketarik izango aurreko Inauterietatik hona, eta 16 urtetik behar-koeke tendidorako euro 1 ordaindu beharko dute. Hamasei urtetik gorakoeke, berriz, 2 euroko salneurrian izango dituzte sarrerak. Harmailarako eta palkorako sarrerak 2 eta 2,5 euroko prezioa izango dute, hurrenez hurren.

Sarrerak zezen-plazako lehiatilan bertan izango dira eskuragarri ikuskizun egunetan, 11:00etatik 13.00etara eta 15:30etik aurrera. Hala ere, izango da aurrez erosteko aukerarik ere, Leidor

aretoko lehiatilan otsailaren 28an, martxoaren 1ean eta martxoaren 2an, 09:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara bitartean. Aipatzekoa da, sarreraren %10a ikuskizun egunetarako gordeko dela. Bestalde, Ostiral Meheko nahiz Asteartita goizeko zezen-plazarako sarbidea doakoa izango da.

### Zozketa palkoetarako

Aurten lehenengoz, palkoetarako sarrerak zozketatu egingo dituzte, eta parte hartzeko izena eman beharko da kultur etxean otsailaren 21etik 24ra.

Zozketa hilaren 25ean burutuko da kultur etxeko lehenengo solairuan, 19:00etan.

Pertsona bakoitzak palko bakarra hartu ahal izango du egun bakoitzeko, zozketaren ondoren 30 euro ordainduta, bakoitzean 12 pertsonentzako lekua baitago. Saltzen ez diren palkoetarako sarrerak, lehiatilan jarriko dituzte erosgai.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Apartamentua.** Jaka erdigunean, altzariz guztiz hornituriko apartamentua salgai. Garaje eta trastelekuarekin. Interesatuek deitu 667 49 25 57 telefono zenbakira.

■ **Motorra.** Suzuki RMZ 450 bat salgai. 2006. urtekoa da, eta egoera oso onean dago. Interesatuenek dei dezatela 635 75 09 15 telefonora.

## Gutunak

### Udaletxean euskara.

Udaletxean dagoen Herritarren Arreta Zerbitzura joan naiz informazioa eskatzera. Jakina den moduan, nik euskaraz egin diot, baina ez zuela ulertzen ikustean, euskaraz ez al dakien galdetu diot, eta «un poco» erantzun dit. Euskaraz jarraitzea ezinezkoa zenez, gazteleraz hitz egin behar izan dut.

Ondoren, udaleko euskara sustatzaileari deitu diot gertatuaren berri emanez. Honek, sustatzaileak, aspaldi honetan askotan eskatu duela pertsona horren tokian euskalduna jar dezaten, baina batzordeko buruak ez diola jaramonik egiten esan dit. Hau herritarrek jakitea komeni dela uste dut.

■ **Bittori Etxeberria.** (Tolosa).

## Larunbatetik aurrera salgai izango dira zine bonuak Leidorren

Asteburuan hasi, eta martxoaren amaierara bitarte erabili ahal izango da bonua

### Erredakzioa

Otsailaren amaierarako eta martxoarako Leidor aretoan izango den zine programazioa zehaztu dute jada, eta bonuak erosteko eguna datorren larubata, otsailak 19a, izango da. Leidorreko lehiatilan bertan erosi ahal izango dira 17:00etatik 19:00etara bitartean, eta horrez gain zine saio-

etako ordutegian ere eskuragarri izango dira otsailaren 28ra bitarte. Aipaturiko bonuek 12 euroko prezioa izango dute, eta gaueko saioetarako direnek berriz, 8 euro.

Betiko moduan, adin nahiz mota guztietako ikusleentzako filmeak izango dira, eta estreinatu berri diren pelikula ere izango dira. Horrela, *Animal's kingdom*, *Ga Hoole*, *Morning glory*, *El problema*, *En el camino*, *Zigortzaileak*, *127 horas*, *Poesia*, *Blog*, *El pequeño rey Macius*, *También la lluvia*, *Más allá de la vida*, *¿Qué fue de Baby Jane?*, *Jainkoez eta gizakiez* eta *El discurso del Rey* izango dira ikusgai.

## Irudia



## OARGIKOAK BEHORLEGIN

Pasa den igandean Tolosako Oargi Mendi Elkarrekin Behe Nafarroako Behorlegi mendira egin zuen irteera. Izen bereko herriraino joan ziren autobusez, eta hirur orduko ibilbidearen ondoren iritsi ziren 1.265 metroko tontorrera.

## → Laburrak

### Danborradako parte-hartzaileentzat bilera

**INAUTERIAK** > Festa batzordeak deituta, danborradako parte-hartzaileentzat bilera izango da gaur, kultur etxeko areto nagusian, 19:00etan.

### Haur danborradako kantineren entsegua

**INAUTERIAK** > Zaldunita bezperan haur danborrada izango da aurten ere, arratsaldez. Bertan parte hartuko duten kantinerentzako entsegua antolatuko du Aiz-Orratz-Veleta elkarteak. Entsegua larunbat honetan izango da, hilaren 19an, arratsaldeko 15:30ean, Musika Eskolan.

**MENDI-ALDE**  
Eguneko menuak eta larriak  
Batailoak, Jaumartzeak... **Jatetxea**  
San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

  
**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

AHTren obrak egiten ari dira Tolosako Ugane eta Aldaba auzoetan. Bizilagunak kexu dira lanek eragiten dizkieten arazoengatik eta zenbait langileren jarrerarengatik.

# Auzotarren ezina eta etsipena

Imanol Garcia

**T**olosako Ugane eta Aldaba auzora joateko bi aldiz pentsatu behar da. AHTren obrak egiten ari dira bertan eta makineria zein kamioi handiak noiznahi topatu daitezke aurrez aurre. Horrez gain, obrek errepideak zikintzen dituzte, ez denean errepide bera apurtzen, eta autoz dabilenak eraginak jasaten ditu.

Auzo horietan bizi direnak, baina, ez dute errepide horiek erabili beste erremediorik. Eta sentitzen duten ezina eta etsipena handia da. Auzotarrek Intxur elkartea eratu dute orain gutxi eta obren inguruko gaiaz arduratzen dene-tako bat da Uganen bizi den Patxi Urretabizkaia. «Haserrea, amorrua, nazka, beldurra, lotsagarria...», erabiltzen ditu egoera nola bizitzen ari diren deskribatzeko.

Obrak orain urtebete hasi ziren. «Errepidea guztiz hondatuta uzten ari dira», dio Urretabizkaia. «Obrak bukatzen direnean espero dugu konponduta utziko dutela. Udala gainean dago, baina bitartean...». Lanak aldre-bres egiten ari direla gaineratzen du: «Ez dudana ulertzen da nola hasi daitekeen horrelako obra bat egiten bidea egokitu gabe».

Errepidea askotan oso zikinduta dagoela azaltzen dute auzotarrak eta ez dutela behar bezain-beste garbitzen. «Denbora batez oinez ezin zela zeharkatu egon gara. Lurrarekin eta harriekin horrelako salda moduko bat sortzen zen errepidean. Autoek Paris-Dakar egiten ari zela zirudien».

Horrez gain, obretan ari diren langileen jarrera salatu dute. «Ematen du gu garelako kanpokoak eta beraiek bertakoak. Askotan sutan jartzen zara. Enbarazu egingo bagenu bezala begiratzen digute», dio Uganetarrak. «Bat edo beste badaude jatorrak, baina beste batzuk nazkagarri hutsak dira». Autoak gurutzatzeko leku gutxi dago errepidean eta askotan langileek beraien autoekin edo kamioiekin ez dutela errespetatzen diote. «Aurrera egiten dute

eta kito. Jende bat beldurtuta egoten da», gaineratu du. Aldabarako bidean zabalgunek egin dituztela dio, baina han ere langileek erakusten duten errespetu faltaz kexu direla argitu du.

Azkenaldian tunelak egiteko ez-tandak egiten ari dira. «Ez digute horren berri eman eta goizeko hiruetan ere egiten dituzte». Baserrietako kristalak mugitzen direla esaten dute eta pitzadurak azalduko ote diren kezkatuta daude. Ikaztegieta ere bertako bizilagunek ez-tandak nabaritzen dituzte.

## «Nahi dutena egiten dute»

Urretabizkaia obretako enpresek duten jarrera salatzen du: «Nahi dutena egiten dute, hori eta gehiago». Aldaba erre-karen gaineko zubia jartzen du adibide bezala. «Bazekiten zubiak ez zuela makinerien pisua utsiko. Bazekiten zubi konpontzea eskatuz gero, sei hilabete inguru itxoinar-ziko zietela. Orduan hasi ziren makineria handiarekin pasatzen eta nahita puskatu zuten. Atzekoz aurrera egiten dute dena».

Beste salaketa bat errepidera eroritako harriak dira. Kamioiak gehiegi zamatzten direla eta gero harriak erortzen direla diote. «Hiru mila kiloko inguruko harri bat erori zitzaion», dio auzotarrak. «Parean harrapatu zituen zuhaitz txiki guztiak eraman zituen. Gauean gertatu zen eta goiz-erako kendu zuten. Baina nor-bait pasatzen ari bazen une horretan?».

Harri borobilak 50 eta 100 kilo ingurukoak errepidera asko erori direla dio Urretabizkaia. «Hori nik egiten dut eta kartzelara eramaten naute. Hauek dena libre dute». Gogora ekartzen du ere auzotar bati harri bat auto azpian gelditu zitzaioela.

Tolosako Udalak erakusten duen jarrerari dagokionez, Urretabizkaia dioenez, «ematen du nahiko jarraitzen duela obra, baina kasu handirik ere ez diete egiten beraiei. Udalak nahi baldin badu indarra du. Baina ez dute nahi sartu gehiegi. Guri ondo hitz egiten digute eta haiei ere bai». Uganetarrak gaineratu due-



Uganen hondakindegia handi batean botatzen dituzte tunelak egiterakoan ateratzen dutena. I. GARCIA



Uganera doan errepidearen zati bat hondatuta. I. GARCIA



Aldaba auzora bidean hondakindegia egin dute. I. GARCIA

nez, «ez da erraza horrelako obra egitea, baina lanean ari direnek auzokoengana errespetua izateko eskatzen diegu».

## «Aurreikuspen lanik ez»

Olatz Peon Auzoetako eta Landa Eremuetako zinegotziak azaldu duenez, «guri tokatzen zaiguna da herri bideetan ikuskapen lanak egitea. Bideak erabilgarri eta

garbiak egon behar dira. Udalarari tokatzen zaio gainean egotea eta saiatzeko garena da bizilagunen bizi kalitatea ez jaiste».

Enpresek erakusten duten jarrerari buruz galdetzean, «ni epaiketa egiteko ez dakit egokiena izango nintzakeen», azaldu du Peonek. «Sekulako obra da eta gure auzoetako errepideak ez daude horretarako prestatuak.

Aurreikuspen lana faltan botatzen da eta horregatik azaldu dira arazoak. Zubi bat botatzen bada berria egiten dute, baina hori botatzerakoan bizilagunek sentitzen duten amorrazioa ez zaie kentzen».

Auzoetara joan denean, udal-tzaingoarekin batera joaten dela dio zinegotziak, ikusten dutenaren akta jasotzeko eta argazkiak egiteko.

Auzotarrek bere bizi kalitatea ez jaisteko «eskubidea» dutela dio. «Udala oso-oso gainean egon da bizilagunen kexei erantzuteko», dio. Errepidea moztzen dute-nean ez dutela abisatzen eta udalari enpresakoei abisua ematea tokatzen zaiola esaten du.

Errepidearen egoerari dagokionez, hiru udalen artean egindako txostena aipatzen du. Errepidearen lehenengo zatia ikaztegietakoa da, bigarrena Legorretakoa eta hirugarrena Tolosakoa. «Errepidearen egoerari buruz txostena aurkeztu genion obretako arduraduneri, lanak bukatzerakoan gutxieneko konponketa zein izan behar diren zehaztu. Txosten hori onartu egin zuten», azaltzen du Peonek. «Astero eta ia egunero pixka bat gainean ibiltzen da udala». Aldabako errepidea Foru Aldundiarena dela zehaztu du zinegotziak, «baina guk ere auzokoen kexak jasotzen ditugu eta gero parte ematen diogu Foru Aldundiari».

Hemendik pixka batera Tolosa eta Hernialde bitarteko tartean obrak hasiko direla azaltzen du Peonek eta horrek Urkizu eta Montezku auzoei eragingo diela. «Udalak eskatu du obren plana, jakiteko nola eragingo duten errepideetan lanek. Hori oraindik ez digute ekarri. Ekartzen dute-nean bizilagunekin egongo gara azalpenak emateko».

Aurreko bilera batean, zinegotziak Urkizukoei eta Montezkukoei badaezpada aurreratu zien lanak hasi aurretik «haserretu egin behar dela». Jendeak «bizi kalitatea mantentzeko eskubidea» duela gaineratu du zinegotziak.



Pasa den asteburuan Viana de Cega herriko dantzariak izan ziren gurean, Udaberri dantza taldearekin egindako elkartrukea itzultzeko.

# Dantzaren bideetan gurutzatuz

## Itzea Urkizu

**H**erri bakoitzean izaten da dantza talderen bat Euskal Herrian. Batzuek jardun serioago bat izan ohi dute, emanaldi gehiago, beste helburu batzuk. Besteek berriz, herriko festetarako prestatzen dituzte dantzarik ederrenak. Bada, ordea, dantzarako grina mantentzen duen zerbaite talde hauetan guztietan: taldearen beroa. Tolosako Udaberri, dantza taldea baino gehiago lagun taldea dela dioite, eta badirudi pasa den asteburuan Valladolidetik Tolosara bisitan etorritako taldean ere badela halakorik.

Viana de Cega Valladolid hiri-

burutik 15 kilometrora dagoen herrixka da. Uda partean herriko biztanleria hiru bider handiagoa izaten den arren, urte osoan zehar 1.900 lagun inguru bizi dira bertan. Gehienek euskarri ekonomikoa Valladolid hiriburuko industria da, eta herritar asko kanpoan pasatzen dute eguna. Herri txiki honetan, ordea, folkloreaki bere tokioa eskaintzen diote aspaldidanik. Pasa den asteburuan, lauzpabost orduko bidaia autobusean egin ondoren, Tolosara iritsi ziren Asociación de Folklore La Rotonda-ko taldekideak, Udaberri dantza taldearekin hitzarturiko elkartrukea itzultzeko, eta bi egunetan dantza egiteaz gain, tolosarren parranda-lagun nahiz mahaikide izan dira.



Jantzi deigarriak erabiltzen dituzte dantzarako Vianakoek. M. UGARTEMENDIA

## «Etorkizun beltza ikusten diet gurea bezalako taldeei»

### Itzea Urkizu

La Rotonda taldeak hiru hamar-kada inguru ditu, eta bertako gazteenek tradizioari jarraitu nahi ez dieten arren, Betty taldekideak dio herrian badela folkloreaki eutsi nahi dionik ere.

#### Zenbat taldekide zarete gaur egun?

Oraintxe bertan 16 bat gara taldean. Musikariak ez dira taldeko partaide, betidaniko gure lagunak dira, eta emanaldiren bat dugun bakoitzean deitu egiten diegu jotzera etor daitezten.

#### Zenbat urteko bidea darama La Rotonda folklore taldeak?

1983az geroztik daramagu dantzan, baina elkarte moduan La Rotonda 1992an sortu zen. Dantzez gain, Erdi Aroko artisautza azoka antolatzen dugu Vianan, eta folk kontzertuak ere antolatzen ditugu talde desberdinekin. Horretaz gain, dultzaina eskola dugu. Dantza egiteaz gain, beraz, folkloreakin loturiko beste ekitaldi asko burutzen ditugu urtean zehar.

#### Talde-dinamikari dagokionez, asten zenbat entsegu egiten dituzue?

Lan kontuak direla eta, taldekideon artean ordutegiak ez dira batezgarriak, eta astean behin egiten ditugu entseguak. Emanaldiren bat gertu denean, berriz, egun gehiagotan aritzen gara.

#### Hemengo taldeetan mutil falta oso nabaria da, adin batetik aurrera nahiago izaten baitute beste zerbaiteetan hasi. Han ere gauza bera gertatzen al da?

Bai, hemen ere mutilak gutxiago izan ohi dira, kirolek jota dute, eta badirudi, oro har, dantzak ez diela grina handirik sortzen. Ordea, hasten direnek gero ez dute taldea uzten, beraz badirudi gustuko suertatzen zaiela.

#### Lehenago izan al zineten Euskal Herrian?

Ez, ez gara sekula izan, eta gure folklore jaialdian ere lehenengo aldiz izan genituen udan dantzari euskaldunak. Izugarri gustatu zaigu ikusi duguna!

#### Taldeen arteko elkartruke hauek zer eskaintzen diote talde bati?

Oso aberasgarria da kulturari dagokionez: beste herrialde batzuetako dantzak ezagutzen dira eta baita jende berria ere, eta hori oso onuragarria da bai norbanako bezala eta baita taldearentzat ere.

#### Gaur egun dantza tradizionalak gazteen artean ez du arrakasta handiegirik. Zein etorkizun ikusten diezu zuzena bezalako taldeei?

Gure kasuan, betidanik izan dugu haurrentzako dantza eskola bat, baina oraintxe bertan ez dugu haur bat ere. Ondorioz, eta oraingoz behintzat, oso etorkizun beltza ikusten diot taldeari. Egungo taldekideok aurrera jarraitzen ez baldin badugu azkenean desagertu egingo da. Ez dakit zer gertatzen den, baina orain jendeak ez du halakorik nahi. Nire ustez gurasoek ere zeresan handia dute, txikitatik haur bati tradizio hori ez bazaio etxean erakusten, zaila delako haurrak bere kabuz dantza egin nahi duela esatea. Dena den, herritarrei gure dantzak ikustea gustatzen zaie, jende asko hurbiltzen da emanaldiak ikustera.



Udaberriko kideek Lekeltioko Kaxarranka eskaini zuten. I. URKIZU

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza

bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:

Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31860 Leizua

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

• Lanbidea: \_\_\_\_\_

• Helbidea: \_\_\_\_\_

• P.K.: \_\_\_\_\_

• Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

• Kontu zenbakia:

• N A : \_\_\_\_\_

• Jaioteguna: \_\_\_\_\_

• Herria: \_\_\_\_\_

• Tel.: \_\_\_\_\_

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSA, HERRIA, HEDARIDEAK S.M.-ren fitxategi automatizatuta batera pasatuko direla, enpresak dituen eskaintzen berri emateko, zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezetzatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzeko. Hala ere, nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: TOLOSA, HERRIA, HEDARIDEAK S.M.-ren Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa, edo harpidetsa@hitza.info

# Zabalik dago Sagainen datozen bi irteeretan izena emateko epea

Hurrengo bi igandetan Arabako Lokizera joango dira batetik, eta Luz Ardidenera alpino eskia egitera, bestetik

**Enertiz Maiz** Asteasu

Asteasuko Sagain mendi taldeak datozen bi asteburuetarako irteerak antolatuak ditu. Hilaren 20an, egun osoko mendi irteera egingo dute Arabako Lokizera eta hilaren 27an aldiz, Luz Ardidenera (Frantzia) joango dira alpino eskia egitera.

Igande honetan, hortaz, egun osoko mendi irteera egingo dute Arabara, Lokizera, hain zuzen. Ganuza herritik abiatuko dira eta ibilbide erraza eta ikusgarria izango da. Lau ordu eta erdiko ibilbidea prestatu dute. Irteera 08:00etan izango da udaletxe aurretik eta itzulera arratsaldean izango bada ere, ordua ez dute zehaztu. 12 urtetik beherakoentzako 5 euro balio du irteerak eta 12 urtetik gorakoentzako 10 euro. Izena kiroldegian eman beharko da edo 943 69 34 00 telefono zenbakira deituz. Horretarako azken



Bista hauek ikusteko aukera izango da Lokizetik. HITZA

eguna, osteguna izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, [www.sagain.org](http://www.sagain.org) helbidera idatzi behar da edo 610 56 26 34 telefono zenbakira deitu.

## Alpino eskia Luz Ardidenen

Hilaren 27rako alpino eskia egiteko aukera ematen duen irteera prestatu dute. Familia guztiarentzat egokia da irteera hau, baina batik bat, 12-18 urteko gazteei zuzendua dago. Autobusa, 05:30ean aterako da Asteasuko udaletxetik eta Villabonako kiroldegiaren au-

rreen 05:45ean izango da. Itzulera berriz, 20:00ak inguruan izango da. Bidaia erakosten duen 50 euro izango da, bidaia eta forfaiata barnean daude.

Izena Asteasuko kiroldegian eman beharko da eta 20 euro aurreratu beharko dira. Kasu honetan, izena emateko azken egun hilaren 23a, asteazkena, izango da. 18 urtez azpikoa izanez gero, udaletxeko errolda ziurtagiria, orri batean gurasoen baimena eta NAN, pasaporte edo familia liburuaren kopia beharko dituzte.

## Gazteen eski eta 'snow' irteeran izena emateko epea zabalik dago

Azken eguna hilaren 28a izango da eta Luz Ardidenera joango dira; 12 eta 20 urte bitartekoentzat da

**E. Maiz** Villabona-Zizurkil

Villabona eta Zizurkilgo Udalek, aurtur ere elkarlanean, 12 eta 20 urte bitarteko gazteentzako irteera antolatu dute.

Eski eta snow egiteko aukera izango dute animatzen diren gazteek.

Irteera Luz Ardidenera izango da martxoaren 12an, larunbata. Irteera joan ahal izateko hilaren 28a baino lehen eman beharko da izena.

Izena Amasa-Villabonako Gazte Bulegoan eta kiroldegian eman daiteke eta Zizurkilaren kasuan, Aurrera plazako udal bulegoetan eman beharko da.

18 urtetik beherakoek, 25 euro ordaindu beharko dute irteerara joateko, eta hortik gorakoek berriz, 35 euro ordainduko dute.

Izena ematerakoan ezinbestekoa da NANaren fotokopia, dirua eta adin txikikoek gurasoen baimen orria sinatuta aurkeztea.

## → Laburrak

### Emakumeen Nazioarteko Eguna antolatuko bilera

**LARRAUL** Martxoak 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, gaur, hilak 16 larrauldarrek bilera egingo dute. 17:30ean liburuetegian elkartzeko dira eta helburua, Emakumeen Nazioarteko Egunari begira zer antolatu behar den erabakitzea izango da.

### Dantza Soka eguneko entsegu orokorrak

**ANOETA** Dantza Soka eguna, hilaren 26ean ospatu dute. Axeri dantzaren, fandangoaren eta arin-arinaren entseguak egin dituzte eta entsegu orokorren garaia iritsi da. Hilaren 18an eta 24ean izango dira, 18:30ean frontoian. Aurtur dantza aldatu denez, oso garrantzitsua izango da entsegu orokorretara joatea.

### Bilboko manifestaziora joateko autobusa

**ASTEASU** Asteasuko ezker abertzaleko kideek, herritar guztiak larunbatean Bilbon burutuko den *Bakerantz Legiazioa* leloa duen manifestazio isilera gonbidatu nahi dituzte. Autobusak Villabonatik irteango dira eta bertan apuntatzeko ostirala bitartean 615 70 87 32 telefonora deitu daiteke.

# Haurrak euskaraz erregistratzeko arazoak

Aduna eta Zizurkilgo familiek eskaerak eginagatik arazoak dituzte; saiakerekin jarraituko dute

**Erredakzioa** Tolosaldea

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak eskualdeko herri guztietan gurasoek haurrak euskaraz erregistratzeko dituzten eskubideak aldarrikatu ditu. Izan ere, herri batzuetan arazoak izan dira eta horien berri eman du UEMAk.

## Zenbait kasu

Adunan, guraso batzuek beren borondatearen aurka, haurra gaztelaniaz erregistratu behar izan dutela adierazi dute. Beste guraso batzuek ere eskaera egin dute alaba euskaraz erregistratzeko (apirillean jaioko da, ondo bidean), baina ez diote erantzunik eman. Bigarren eskaera ere egin dute, haurra jaiotzen dena-



Alegiako haurreskola berria hiru haur jolasean. I. GARCIA

ko erregistroa euskaraz egiteko aukera egongo den itxaropenarekin, eta honen erantzunaren zain jarraitzen dute baita.

Adunako Udala bere aldetik, Jaurlaritzarekin harremanetan jarri da ahalik eta lasterren haurrak euskaraz erregistratzeko aukera berma dezan. Jaurlaritzaren erantzuna izan da Gipuzkoako sei herritan jarriko dutela esperientzia pilotu bat lehenik, eta horietako bat dela Ibarra. Horren ondo-

ren beste herrietara zabalduko lukete.

Zizurkilan ere beste kasu batzuk daudela azaldu du UEMAk. Ama batek eskaera egin zuen haurra euskaraz erregistratzeko, eta ez du erantzunik jas, bigarren eskaera egin behar izan duelarik. Beste guraso batzuek eskaera bideratu diote bake epaitegiari, haurra jaiotzen dena erregistroa euskaraz egon dadin.

UEMAkoek, gogorazi nahi

dute, haurrak euskaraz erregistratzeko ez dagoela legezko mugarik. Bake epaitegiatiko eta erregistro zibiletako jarduna 1957ko lege batean dago oinarrituta, eta, 2005ean, lege horren 23. artikulua aldatu zen, haurrak euskaraz, katalanez eta galegoz ere erregistratu ahal izateko. Beraz, 2005etik ez dago legezko oztoporik haurra euskaraz erregistratzeko. Haurrak bake epaitegiatiko erregistro zibiletan erregis-

tratu behar dira eta erregistro liburuak gaztelaniaz daude.

Gaur egun, hori egiteko aplikazio informatikoa dago, baina toki bakar batzuetan dago ezarrita.

Gogoratu behar da, era berean, eskualdeko UEMAko hamahiru udalek mozioak onartu zituztela bi eskaera eginenez: dagokien arduradunei ahalik eta lasterren neurriak hartzea, eta, guraso izango direnei haurra euskaraz erregistratzeko eskaera egitea.

Biarritzeko Atabal gelan  
37, Moura Kalea 64200 MIARRITZE

**LEE PERRY**

Otsailaren 19an  
Arratseko 21:00etan

l'atabal  
Scène de Musiques Actuelles de Biarritz



IBILDI LUZEA BURUTU DUTE eskualdeko bi ibiltarik: Erromatik abiatu eta Santiagoraino joan dira. Oiarzabal alegiarrak segidan egin ditu 2.600 km eta Otermin amezketarrak, lehen zatia.

# Erromatik Santiagora, 100 egun

Joxemi Saizar

**E**rromatik oinez abiatu irailaren 15ean eta Santiagora abenduaren 25ean iritsi zen Anjel Oiarzabal alegiarrak, 2.600 kilometro inguru oinez eginez. Hori gutxi ez nonbait, eta Finisterrera jarraitu zuen. Orain, Alegira itzultita, bere esperientzia azaldu dio HITZARI.

Joxe Mari Otermin amezketarrari bururatu zitzaion ideia. Euskadi Irratiaren bultzatzaileetako eta EITBko buruetakoa izan denak Donejakue bidea egina du pare bat aldiz, bide frantsesetik eta kostatik. Eta Amezetari eta Pernando Amezetarrari buruzko liburua ere argitaratu ditu azken urteotan. Bertsolari ospetsuari buruzko dokumentazioa bilatzen ari zela aurkitu zuen emakume batek 1870ean Udalarri Erromara joateko egindako laguntza eskaera. Egindako bekatu baten penitentzia gisa joan omen zen. Bi azalpen aipatzen ditu Oterminek *Amezketak, bide luze bezain malkarrak* liburua Juan Garmendia Larrañagaren *Obras completas* liburutik jasota: ezkondu gabe haurdun gelditu ote zen elizgizonen batekin ibili ondoren edo haur jaioberria lurperatu ote zuen. Erromara joan eta etorri egin zen eta eskean bizitu omen zen Josefa Artola Toledo, 1918an hil arte.

«Garai hartan oinez egingo zuen, atzerriko hizkuntzarik jakin gabe, diru gutxirekin, eskean», dio Oterminek. «Aitzaki polita» iruditu eta mendi ibilaldietan lagun duen Anjel Oiarzabal alegiarrari egin zion proposamena: Erromatik Santiagora oinez joatea. Iazko urtarriletik martxora Alegia-Santiago-Alegia egin zuen oinez alegiarrak. Oterminek, «familia eta konpromisoak direla eta» zatika egingo zuela argi utzi zuen hasieratik. Oiarzabalek, dena jarraian.

## Hiru lagun Vatikanotik

Adostasunera iritsita, hegazkinen joan Erromara eta irailaren 15ean abiatu ziren Vatikanotik oinez. Jose Montero madrildarra to-

patu zuten lehen albergean eta bidelagun izan zuten. Ingalaterratik Erromara doan bidea hartu zuten lehendabizi. «Bide hori berreskuratu egin nahi dute orain», azaltzen du Oiarzabalek. Baina une batean desbideratu eta Frantzia aldera jo behar izan zuten hiru ibiltariak. Genova eta Siematik pasatu eta gero Frantziako Kosta Urdinera jo zuten, Nizatik pasatuz. Frantziako mugan, Ventimiglian, Oterminek etxerako bidea hartu zuen, aurretik esan bezala. «Okerrik ez badago, udan edo uda hondarrean hurrengo zatia egiteko asmoa daukat, Arleseraino. Hamabost bat egun behar ditut. Eta irailean, Somportarainoko zatia», azaldu dio HITZARI Oterminek.

Behin Otermin etxera joanda, Monterorekin gelditu zen alegiarrak. Arleserainoko zatian seinalerik eta aterperik ez dagoenez, ahal zuten modura ibili ziren, bigarren mailako errepedeetatik, berriro Santio Bidea topatu arte. Hogei bat egun egin zituzten horrela. Arlesetik pasatu eta astebehera lagun madrildarrak irristatu eta istripua izan zuen. Hanka hautsi zuen eta helikopteroz eraman zuten. Etxera joan behar izan zuen. Oiarzabal bakarrik gelditu zen handik aurrera. Pabe inguruan familiaren bisita izan zuen, udako eta neguko arropa aldatzeko aukera izanez. 14 kg zerman motxilan. Somportetik zeharkatu muga eta Gareseraino ia ez omen inor topatu. Handik aurrerakoa ondo ezagutzen zuen, iazko martxoan joan-etorriko bidaiatik. Ezagunak ere aurkitu ditu, Beloradoko (Burgos) aterpean, besteak beste.

Egunero 25-30 km egin ditu oinez. Goizean bederatzia aldera abiatu eta eguerdiko ordu bi eta erdiak aldera bukatuz etapa. Ahal den gutxiena geldituz. Horrela lotarako tokia eta jateko tokia bilatzeko eta hurrengo egunerako arropa prestatzeko nahiko denbora bazuen. Turismo bulegoetan izan du laguntza handia. «Otermin ondo moldatzen da italiarrek eta frantsesek. Baina bakarrik gelditu nintzanean, frantsesik ez dakidanez, haietan bidera-



Anjel Oiarzabal eta Jose Mari Otermin Vatikanon, Santiagora abiatu ziren egunean. HITZA

tzen ninduten», dio. Lau atsedean egun ere hartu ditu tartean. Toulouse adibidez. Hiri handiak zeharkatzeko autobusa ere hartu behar izan du, «baina oso tarte txikietan».

## Eguberri egunean Santiagon

«Leonen nengoan Eguberri egunerako bederatzia egun falta zirela. Egun horietan 308 km egitea lortu nuen, egun seinalatuan sartzeko Santiagoko katedralean. Afari berezia izan genuen Gozo



Anjel Oiarzabal etxe batean afaltzen. HITZA



“Bideak estetika propioa du: elizak, hiriak, gazteluak, monasterioak... eraiki dira inguruan»

ANJEL OIARTZABAL  
Ibiltaria

mendiko aterpean. Eta Urte Zaharrean Finisterren lurralde desberdin askotako erromesak elkartu ginen», erantsi du.

Oinez ibiltzen ohituta dago Oiarzabal eta ez du arazorik izan. «Botikina ere eraman nuen, baina non zegoen ere ez nekien. Seinale ona da hori. Alegiara etorri eta herri erdia gripearekin dagoela ikusi dut. Nik ezutl bat ere ez dut egin ehun egun horietan, askotan zopa eginda iritsi eta arropak lehertzeko komeriak izan arren», azaldu du.

Bide luze hau egitearen arrazoia galdetzen diote behin eta berriaz alegiarrari. «Gure gurasoek erlijioagatik esango lukete, baina

gu epelagoak gara. Bideak bere estetika badu: elizak, hiriak, gazteluak, monasterioak... eraiki dira inguruan. Bideak berak erakarri du hori guztia, beste ez lirateke hor egongo. Toulouseko katedralean apaizarekin hitz egin nuen. Accous-en (Zuberoa) Aita Gurea bion artean erreztatu genuen euskaraz mezetan. Alegiako apaizak emandako aurkezpen gutuna ere erakutsi nion», agertzen du.

Orain etorkizunerako proiektuez galdetzen diote, etxean ere «gustura» dagoela esaten du. Jerusalem, Cabo Norte, Zetaren Bidea... proposatzen diote, baina horrelako asmorik ez du.



→ **Laburrak****Ines Bengoa ipuin kontalaria kultur etxean**

**IBARRA** › Gaur, 17:30ean Benito Izagirre Kultur Etxean ipuin kontalaria saio bat izango da. Saioa Ines Bengoa zuzenduko du eta 3-5 urte bitarteko haurrentzat zuzenduta egongo da. Ibarako udal liburategiak antolatu du ipuin kontalariaren saioa. Interea duen oro bertaratzera gonbidatzen dute.

**Leaburuko udal liburategia berriro zabalik**

**LEABURU** › Leaburuko udal liburategiak atek zabaldu ditu berriro. Liburutegia astelehen, asteazken eta ostiraletan 17:00etatik 19:00etara irekiko dute. Leaburuko Udalak ordu-tegi horretan KZ Guneko zerbitzu erabilari izango dela gogorarazi du. Baita astelehene-tik ostiralera 08:00etatik 14:30era eta tutoreak adierazten duen egunetan ere.

**Guraso Elkarteak antolatutako ikastaroak**

**BERASTEGI** › Guraso Elkarteak zenbait ikastaro antolatuko ditu herritar guztientzat. Automakillajea, kosmetika naturala, gizarte sareak, bitxien tailerra izango dira ikastaro hauetako batzuk. Izena emateko orria etxe guztietan banatu dute, baina norbaitek jaso ez balu Guraso Elkartearekin harremanetan jarri behar du, *beastige@gmail.com* helbidean. Izena emateko epea otsailaren 12an bukatuko da. Guraso Elkarteak herritar guztiak ikastaroetan parte hartzea animatzen ditu.

# 2012. urtean Amazabal auzoa berrituko dute

Lanen gastuaren %70a Nafarroako Gobernuaren diru laguntzei esker ordainduko du udalak

**Erredakzioa** Leitza

Amazabal auzoa guztiz berrituko dute 2012. urtean. Proiektua lehiaketa publikoan atera zuen Leitzako Udalak. Lehiaketa parte hartu nahi duten enpresek, gaur 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko dituzte beraien proposamenak. Astelehenean kontratazioaren inguruko bilera egingo dute.

Proiektua maiatzaren 1a baino lehen Nafarroako Gobernuan aurkeztuko dute. Bertan oniritzia ematen diotenean hasiko dira lanak. Xabier Zabalo, Leitzako alkatearen ustez, 2012ko otsailaren inguruan hasiko dira lanak.

Lanek izango duten hedadura dela eta, 6.200 metrokoa zehazki, lana bukatzeko bederatzita hilabete beharko dituztela uste dute. Honela, 2012. urtearen amaierarako lanak bukatuta edukitzea espero dute.

Amazabal auzoa 70. hamarkadan sortu zen, Leitzako biztanleria hazten ari zela eta. Orduz gero, ez da ia konponketarik egin sarean eta zolaketan.

Proiektu honekin Amazabal auzoko sare guztiak berrituko dira, ur zikinenak, elektrizitatearenak, urarenak eta telekomunikazioarenak. Horrez gain, hiri-lu-

rrari dagozkion berrikuntzak ere egingo dituzte, hauek aparkalekuak, sola eta espaloi berriak konpontzeko izango dira.

Amazabal auzoko lan hauek 2012. urteko garrantzitsuenetako bat izango dira. Izan ere, 850.000 euro inguruko gastua izango dute. Gastu hauei aurre egiteko, Leitzako Udalak Nafarroako Gobernuaren diru laguntza izango du, honek gastuaren %70 inguru ordainduko duelarik.

Gauzak honela, Amazabal auzoa eraberritu egingo du udalak 2012. urtean.

**Atekabeltz ere abian**

Amazabal auzoko lanekin hasi aurretik, jada martxan zuen lanetako bat amaitu berri du Leitzako Udalak. Izan ere, Atekabeltz berriaren lanak «udalaren aldetik bukatuta daude» Zabaloren hitzetan. Hala ere, oraindik zenbait herritar auzolanean ari dira larunbatetan, horrela ahalik eta azkarren lanak amaitu eta proiektu berria martxan jartzeko.

Behin Atekabeltz berrituta, udalak lehiaketa publiko bat atera zuen eraikinaren gestioa zeini eman erabakitzeko. Lehiaketa zortzi eragilek osatutako Atekabeltz elkarteak soilik aurkeztu zen. Beraz, autogestioan oinarritutako kudeaketa beraien esku utzi du hogei urtetarako. Azken bost urtetan Gaztetxea eta aurretik Guardia Zibilaren kuartela izandakoa, herrigune berria bihurtzeko asmoarekin berritu dute. Herrigo gizarte eta kultur eragileen atarpe izanen da.



Erabilera anitzeko eraikinaren planoak, ekialdetik. HITZA

## Erabilera anitzeko eraikina egiteko lehiaketa ireki dute

Lehiaketa irabazten duen enpresak ondoko orubean egingo diren etxebizitzak ere eraiki beharko ditu

**Erredakzioa** Ibarra

Ibarako Udalak erabilera anitzeko eraikina zein aldameneko orubean egingo dituzten etxebizitzak egiteko lehiaketa zabaldu du. Txelo Romeoren hitzetan erantzuna «oso positiboa» izan da, proiektu honetan interesatutako zortzi enpresen proposamenak jaso baitituzte. Honek, era berean, «Gipuzkoan bakarra den zentro honek piztu duen interesa erakusten duela» erakusten du Romeoren ustez.

Aurretik, udalak LKS enpresa-

ri 151.000 euroko aurrekontua zuen proiektua esleitu zion. Aipatutako enpresak Ibarako Udalak ezarritako irizpideak «oso kon-tuan hartu» zituelako irabazi zuen. Guztira 14 proposamenak jaso zituen udalak.

Erabilera anitzeko eraikin honetan kokatuko dira eguneko egoitza, zaharren etxea, eta 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzat xedatutako alokairu sozialeko apartamentuak.

Txelo Romeok azpimarratu du 2012. urtean amaitzea aurreikusitako azpiegitura honek «ondorio onak izango dituela Ibarako herritar guztientzat, gure gizartearen behar handienak dituzten giza-taldeak baliabidez hornitzea suposatzen duelako».

Eraikina Behetikobiden kokatuko da eta 4.200.000 euro inguruko inbertsioa egitea ekarriko du.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN BALIOA Txina Inperiala**

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK**

902 402 900

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)



13°  
5°

GOIZA LAINTUTA  
ARRATSALDEA LAINTUTA  
BEROENA 13°  
HOTZENA 6°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Eskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Irudia Tolosaldea eta Leitzaldea



## EUSKARRAZKO HEDABIDEAK AURRERA

Euskarazko 80 hedabidek, tartean TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK, politika berriak eskatu zizkieten erakundeetara Donostian eginiko agerrian. Duela bi aste hedabideek editorial bate-ratua ateratu zuten, eta atzo beste urrats bat eman zuten, hedabideei orokorrean euren egoera eta

beharrak azalduz. Datozen asteetan instituzio eta alderdiekin bilduko direla ere jakinarazi zuten, sektorearen berri eman eta politika berri baten beharra azaltzeko. Publikoak ez diren euskarazko hedabideek etorkizunari aurre egiteko baliabide gehiago behar dituztela azpimarratu zuten. HITZA

## Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak  
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

## Agenda

### DEIALDIAK

■ **Asteasu.** Asteasuko ezker abertzaleko kideek herritar guz-tiak gonbidatzen dituzte larun-batean Bilbon burutuko den *Bakerantz Legalizazioa* mani-festazioan parte hartzera. Auto-busak Villabonatik irtengo dira eta bertan apuntatzeko 615 70 87 32 telefono zenbakira deitu behar da ostirala baino lehen.

■ **Tolosa.** Larunbatean Bilboko *Bakerantz Legalizazioa* mani-festazioa joateko autobusa antolatatu du Tolosako ezker aber-tzaleak. Autobusa 15:30ean aterako da Trianguloatik. Izena emateko aukera, Raku eta Den-nak tabernetan izango da. Ostiralerako eman behar da izena.

■ **Asteasu.** Sagain mendi elkar-teak egun osoko mendi irteera egingo du igandean Arabako Lokizera. Izena emateko azken eguna osteguna izango da, hilak 17. Kiroldegian eman behar da izena. Irteera 08:00etan izango da. 12 urtetik beherakoek 5 euro ordaindu behar dituzte eta gai-nontzekoek 10 euro. 4,5 km in-guruko ibilbidea izango da.

■ **Larraul.** Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta bilera egingo dute gaur 17:30etik aurrera libu-rutegian.

■ **Ibarra.** Udaleko Kirol sailak ireki du 2011 urterako Kirol Jar-dueratarako diru laguntzak es-katzeko epea. Eskeraurkez-teko azken eguna martxoaren 15a izango da. Oinarriak nahiz aurkeztu beharreko agiriak webgunean eskuratu daitezke ([www.ibarrakoudala.net](http://www.ibarrakoudala.net)) ba-tetik, eta bestetik, kiroldegiko bulegoetan ere eskatu ahal dira 08:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 22:00etara.

■ **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketan par-te hartzeko epea zabalik dago. Lehiaketan parte hartu nahi duenak izena eman dezake bai kultur etxean eta baita helbide honetan [www.tolosakouda-la.org/inauteriak/](http://www.tolosakouda-la.org/inauteriak/).

■ **Tolosa.** Martxoaren 4a bitarte (egun hau barne) eskatu dai-tezke Uzturre Asistentzia Zen-troko apartamentu balioanizta-sunak eskuratzeko eskaerak. Eskabide eredu eta dokumen-tazioa Tolosako Udalaren web-gunean nahiz udaletxeko erre-gistroan eskuratu ahal dira.

■ **Tolosa.** Tolosaldea Garatze-nek eta Tolosako Udalak emple-gua sustatzeko antolatutako egitasmoaren barne bi ikastaro antolatu dituzte langabetuen-tzako: sukaldaritza laguntzaile-arena eta planoen interpreta-zioarena. Izena Tolosaldea Ga-ratzenen eman behar da eta azken eguna ostirala, hilak 18, izango da.

■ **Ibarra.** Uzturpe ikastolak 0-5 urte bitarteko haurren gurasoei zuzendutako hitzaldia eskaini-ko du bihar 18:00etan kultur etxean. Nerea Mendizabal psi-kopedagoak eskainiko du *Errespetuzko komunikazioa: bi-zitarako komunikazioa* izena duen hitzaldia.

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Na-gusia, 7. 943 67 06 48.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elba-rren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ERABILI  
WEBGUNE  
BERRIAK!

WWW.

tolosaldea  
leitzaldea  
villabona-aiztondo  
ibarraldea  
alegialdea  
anoetaldea  
tolosa

sartu zure  
gertukoenean!

.hitza.info